



2020ko apirilaren 23an

Familia agurgarriak:

Azken egun hauetan “ **Etxealditik Euskaraldira**” ekimenaren inguruko informazioa jaso duzue. Informazio hori, “belarriprest” eta “ ahobizi” perfilean sartzen zareten pertsoneri zuzendutakoa da batez ere, baina ekimena zertan datzan denok ulertzeko helburuarekin, hiztun-eredu guztiontzat argigarriak izan daitezkeen hainbat azalpen jaso ditugu Euskaralditik:

*Dakizuen bezala, Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko **16 urtetik gorakoen arteko ariketa sozial eta masiboa da**. 2018ko abenduan ospatu zen lehen edizioa eta bigarrena heldu den azaroan jarriko da martxan.*

COVID-19ak eragindako krisialdiaren eraginez, inoiz baino ageriago gelditu zaigu elkarren beharra daukagula: Komunikatzeko beharra daukagula, hitz egiteko beharra, eta komunikatzeko oinarrian hizkuntza dago. Horregatik, hasiko gara hizkuntza ohiturak etxetik aldatzen eta horregatik jarri da martxan “ Etxealditik Euskaraldira” dinamika.

Astelehenetik ostiralera bitarte, egunero, ariketa bat proposatuko dute antolatzaileek, euskaraz jarduteko (hitz egin nahiz entzun) ohitura errotzeko. Bi aste barru bukatuko da egitasmoa, maiatzaren 3an, hain zuzen ere. Dena den, bidearen hasiera izango da. Izan ere, azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango da bigarren Euskaraldia. Beraz, egunotakoa “entrenamendua” izatea da helburua: hizkuntza ohiturei buruz gogoeta egitea, eta aldatzeko urratsak ematen hastea.

Beraz adi egon, datozen egunetan hainbat proposamen jasotzen jarraituko baituzue ohiko bideetatik. Informazio gehiago eskuratzeko, ondoko helbideak kontsulta ditzakezue:

<https://euskaraldia.eus/etxealdia/>

<https://twitter.com/euskaraldia?lang=eu>

Ekimenean parte hartuko duzuelakoan, ondo segi!

EUSKARA BATZORDEA



Estimadas familias:

Estos últimos días habéis recibido información en torno a la dinámica “ *Etxealditik Euskaraldira*”; información dirigida sobre todo a las personas que atienden a los conocidos perfiles de “ belarriprest” y “ ahobizi”. No obstante, con el objetivo de conocer todos y todas en qué consiste dicha dinámica, desde los organizadores de Euskaraldia nos ha llegado la siguiente nota informativa:

*Como ya sabréis, Euskaraldia es un **ejercicio social masivo que se realiza entre las personas mayores de 16 años** que tiene como objetivo cambiar los hábitos lingüísticos orales entre los hablantes que entienden el euskara. Su primera edición se celebró en diciembre de 2018 y la segunda edición será este próximo otoño.*

A consecuencia de la crisis generada por el COVID-19 , ha quedado al descubierto la necesidad que tenemos los unos de los otros: la necesidad de comunicarnos, la de hablar. Y en la base de esa necesidad esencial está la lengua. Así pues, y con el objetivo de cambiar esos hábitos lingüísticos en pro de nuestra lengua, se ha puesto en marcha “ Etxealditik Euskaraldira” .

De lunes a viernes, los organizadores propondrán diferentes “ejercicios” para afianzar la costumbre de hablar o escuchar en euskara. La iniciativa finalizará el 3 de mayo. De todas maneras, recordar que esta dinámica es el principio de un camino, ya que la segunda edición del Euskaraldia se celebrará entre el próximo 20 de noviembre y 4 de diciembre. Por lo tanto, el objetivo de la dinámica propuesta para estos días sería un pequeño “entrenamiento” para reflexionar y dar pasos para cambiar las costumbres lingüísticas en pro del euskara.

Por lo tanto, estad atentos a las propuestas que seguiréis recibiendo durante los próximos días. En los siguientes enlaces encontraréis también más información.

<https://euskaraldia.eus/etxealdia/>

<https://twitter.com/euskaraldia?lang=eu>

Ondo segi!

EUSKARA BATZORDEA